




ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDEKO ESPARRU- PROGRAMA 2017-2020

2018 jarraipen eta ebaluazio txostena



HERRI-HELBURU HANDIA, 2020-RAKO


XI. Legegintzaldiaren (2017-2020) Gobernu programak, Gobernu Kontseiluaren 2017ko otsailaren 21eko Erabakiz onetsitakoak, lau oinarri ditu, horietako bat “enplegua, suspertzea eta jasangarritasuna” delarik. Oinarri horren jarduera-ardatzetako bat **ENPLEGU GEHIAGO ETA HOBEA** sortzea da, **Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Arlo Publikoaren eta Pribatuaren Estrategia Global baten** bidez bideratuko dena.

Helburu horrekin, 2017ko martxoaren 28an, Jaurilaritzak **Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru-Programa “Euskadi 2020”** onartu zuen, zeinak 8.800 milioi euroko guztizko aurreikuspena duen 2017-2020 aldirako, eta baita bi jarduera-ardatz nagusi ere: Enpleguaren ardatza, 1.175 milioi euroko aurrekontua duena, eta suspertze ekonomikoaren ardatza, 5.225 milioi euroko aurrekontua duena. Halaber, 2.400 milioi euro abaletan erabiltzea aurreikusten da.

Enplegua sortzeko helburu nagusi horren barruan, garrantzitsutzat jotzen da, aldi berean, kualitatiboagoak diren zenbait helburu espezifikotan aurrera egitea; adibidez, pertsona guztiei enpleguan sartzeko aukera berdinak ematean eta, bereziki, gazte enpleguaren sustapenean, enpleguaren kalitatea berreskuratzean; eta baita Lanbide-Enpleguaren Euskal Zerbitzua konfiguratzeko ere, honek pertsonen zein enpresei zerbitzuak eta aukerak eskaini diezaien.

Datu kuantitatiboak dagokienez, bete beharreko helburu estrategikoak, Gobernu-programan 1. eta 2. herriaren helburu gisa barneratu direnak, bitan zehaztu dira: alde batetik, 2020an, langabezia % 10etik behera murriztea; eta, bestetik, 2017-2020 aldian, 20.000 gazteri lan aukera bat eskaintzea.

HERRIAREN HELBURU NAGUSI BAT



EDUKIEN AURKIBIDEA


1.	Testuingurua	4
2.	Jarraipenerako metodologia	12
3.	Aurrekontu-exekuzioa eta 2018an lortutako inpaktu-eremak	15
4.	Garatutako jarduerak nagusiak	25
5.	Inbertsiorako 40 Proiektu Estrategiko	34
6.	Testuinguru, jarduerak, eremak eta inpaktu adierazle orokorren neurketa	40
7.	Ondorioak	43
8.	Eranskina: Garatutako jarduerak nagusiak, ardatzetan eta eremuetan sailkatuta	45

1.

TESTUINGURUA

1.1 ESPARRU-PROGRAMA, EUSKADI 2020 PLANGINTZA ESTRATEGIKOAREN ERREFERENTZIA GISA

2017-2020 Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru-programak bat egiten du legealdi honetarako Gobernuak onartutako plan estrategikoen programarekin; izan ere, inguratze-jarduera gisa adierazten da, eta baita, hurrengo urteetarako, enpleguan eta ekonomia-jarduera orokorrean dauden politika publikoen esparru gisa ere.



1.2) JARDUERA ARDATZAK: ENPLEGUA ETA SUSPERTZE EKONOMIKOA

Esparru Programa honek izaera bateratzailea dauka eta Herri estrategia gisa sortu zen. Geroago, 5 plan estrategikoen bitartez garatu eta zehaztuko da:

- 2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoa
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (2020)
- “Euskadi Basque Country” 2020
Nazioartekotzerako Estrategia
- Industrializazio Plana
- Inbertsio Publikorako Programa

Plan hauei esker, Enpleguaren Euskal Estrategia 2020n ezarritako norabide askotako garapen operatiboan aurrera egin daiteke. Estrategia hori herrialdeko eragile sozialekin adostasunean sortutakoa da; betiere, gehigarriak diren beste ildo batzuetan lan egiten jarraitzeko beharra ahaztu gabe, hala nola gure hezkuntza formaleko sistema etengabe hobetzean (derrigorrezko hezkuntza, lanbide heziketa eta unibertsitate-sistema), horiei esker lortuko baita Enpleguaren Euskal Estrategia 2020ren ikuspegi globaletik eratorritako erronkei aurre egiten jarraitzea.

5 plan hauek 2 jarduera ardatz nagusitan egituratuta daude: hazkundea eta enplegua berreskuratzea, Enplegu Plan Estrategikoaren bidez; eta suspertze ekonomikoa, 4i Estrategiaren bidez (Inbertsioa, Berrikuntza, Nazioartekotzea eta Industrializazioa).

2 JARDUTE-ARDATZ: ENPLEGUA ETA SUSPERTZE EKONOMIKOA

ENPLEGUA		SUSPERTZE EKONOMIKOA	
E.1	ETeak, GIZARTE-EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA	R.1	INBERTSIOA
E.2	EKINTZAILATZA SUSTATZEA		
E.3	GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA	R.2	BERRIKUNTZA
E.4	ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA		
E.5	LANERATZEKO PIZGARRIAK	R.3	NAZIOARTEKOTZEA
E.6	RENOBE BIRGAITZE-PROGRAMAK		
E.7	ENPLEGU PUBLIKOA	R.4	INDUSTRIALIZAZIOA
E.8	ENPLEGUAREN KALITATEA HOBETZEA		
E.9	ENPLEGUAREN EUSKAL SISTEMA HOBETZEA		

1.3 BALIABIDE EKONOMIKOAK

Esparru-programak **8.800 M €-ko aurrekontua du 2017-2020 aldirako**, banaketa honekin:

	Zenbatekoa
I. Enpleguaren Ardatza (*)	1.175 M €
II. Suspertze Ekonomikoaren Ardatza (abalik gabe)	5.225 M €
Aurrekontu-baliabideak, guztira (I+II)	6.400 M €
Abalak	2.400 M €
Baliabideak, guztira	8.800 M €

(*) Ez dira barneratu esparru operatibo hauei lotutako baliabide ekonomikoak: E.7- Enplegu publikoa, E.8- Enpleguaren kalitatearen hobekuntza eta E.9- Euskal enplegu sistemaren hobekuntza. Izan ere, esparru operatibo horiek ez daukate zuzeneko aurrekontu-edukirik edota barneko kosturik.

ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDEKO ESPARRU-PROGRAMA EUSKADI 2020

2017-2020 AURREIKUSITAKO BALIABIDEEN GUZTIZKOA (milioi euro)

1. ARDATZA. ENPLEGUA

63 M €	E.1	ETE-AK, GIZARTE EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA
86 M €	E.2	EKINTZAILETZA SUSTATZEA
99 M €	E.3	GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA
282 M €	E.4	ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA
298 M €	E.5	LAN MUNDUAN TXERTATZEKO LAGUNTZAK
347 M €	E.6	RENOVE ERREHABILITAZIO-PROGRAMAK

AURREKONTUA

1.175 M €

5.225 M €

ABALAK
2.400 M €

GUZTIRA
8.800 M €

2. ARDATZA. SUSPERTZE EKONOMIKOA

S.1	INBERTSIOA	2.610 M €
S.2	BERRIKUNTZA	1.765 M €
S.3	NAZIOARTEKOTZEA	125 M €
S.4	INDUSTRIALIZAZIOA	725 M € 2.400 M € ABALAK

ENPLEGU PLANA

1.175 M €




4I ESTRATEGIA

5.225 M €

2.400 M €
ABALAK

1.4. 2017-2020 AURREIKUSITAKO INPAKTUA

ENPLEGU GEHIAGO ETA HOBEA sortzeko zehaztutako herriaren helburuez gain, programak euskal ekonomian inpaktu hau izango duela aurreikusten da: laguntzei esker sortutako 58.000 lanpostu, lagundutako 6.000 enpresa berri, diruz lagundutako 100 ikerketa-proiektu estrategiko berri, lagundutako 1.200 ETE kanpoko merkatuetara sartzen eta lagundutako 4.100 berrikuntza-proiektu.



* Hasierako aurreikuspena laguntzei esker sortutako 45.000 lanpostukoa zen. Hasierako aurreikuspen horri 13.000 lanpostu gehitu zaizkio, Administrazio Orokorrerako, Osakidetzarako, Hezkuntzarako eta Ertzaintzarako antolatutako Lan Eskaintza Publikoetan barne hartutako lanpostuen ondorioz.

Helburu orokor horiek honela sailkatzen dira:

Laguntzei esker sortutako **58.000** lanpostu (*)

12.000 lanpostu sortu dira, enpresa berrien sorrerari esker

15.000 lanpostu sortu dira, etxebizitzaren eta ekipamendu publikoen errehabilitaziorako laguntza publikoari lotuta

18.000 pertsona kontratatu dira, kontratazioa sustatzeko laguntzen bidez

13.000 lanpostu Lan Eskaintza Publikoetan (txanda irekia).

6.000 lagundutako enpresa berri

5.000 mikroenpresa eta autonomo berri

1.000 enpresa berritzaile berri

Diruz lagundutako **100** ikerketa-proiektu estrategiko berri

100 I+G estrategia-proiektu, enpresa lidergotik eta euskal gaitasun zientifiko-teknologikoak erabiliz sortutakoak

1.200 ETEeri laguntza, kanpoko merkatuetara sartzen

200 ETEeri laguntza, nazioartekotze planen elaborazioan

Lagundutako **1.000** ETE nazioartekotzerako proiektuak abian jartzeko ekintzetan.

Lagundutako **1.100** ETE, batez ere industria-sektorekoak, berritzeko eta hedatzeko proiektuetan

1.000 ETE, teknologia-berritzeko eta haien ekoizpen-prozesuak hobetzeko proiektuekin

70 ETE hazteko eta hedatzeko proiektuekin.

30 ETEeri laguntza, zailtasunei aurre egin diezaieten

Lagundutako **4.100** berrikuntza-proiektu ETEtan.

600 ETE kudeaketa aurreratuko, berrikuntzako eta lehiakortasun proiektuekin.

3.500 ETE I+G proiektuekin eta produktu berriak garatzeko proiektuekin

* Hasierako aurreikuspena laguntzei esker sortutako 45.000 lanpostukoa zen. Hasierako aurreikuspen horri 13.000 lanpostu gehitu zaizkio, Administrazio Orokorrerako, Osakidetzarako, Hezkuntzarako eta Ertzaintzarako antolatutako Lan Eskaintza Publikoetan barne hartutako lanpostuen ondorioz.

Gazte enpleguari dagokionez, helburua 20.000 gazteri lan aukera bat eskaintzea da:

20.000
gaztek
lan-aukera
bat
edukitzea


- **3.000** pertsona gazte beraien titulazioarekin lotutako lanpostuetarako kontratatuak, lehen lan-aukera emanda (Lehen Aukera).
- **5.000** gazte hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizio esperientzia praktikoarekin.
- **3.500** ekintzaile gazte berri.
- **2.500** gazte Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen bidez kontratatuak.
- **3.200** gazte euskal administrazio publikoko pertsona erretiratuen lanpostuak betetzeko.
- **400** gazte sektore pribatuko txanda-kontratuen onuradun.
- **200** gazteren itzulerarako laguntzak, atzerrian esperientzia eta prestakuntza eskuratu eta gero
- **1.800** gazte enpresetan esperientzia praktikoa hartzeko beken onuradun.
- **400** gazte aukera-esparru espezifiketan sartu eta profesionalki garatzeko laguntza-programen onuradun.

2.

JARRAIPENERAKO METODOLOGIA

2.1 JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-PROZESUAREN IKUSPEGI OROKORRA

2017-2020 Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru-programaren jarraipena eta ebaluazioa honela ulertzen da: jardueren, urteko kontu emateen eta azken kontu emate baten etengabeko barne-monitorizazio gisa.



2.2 JARRAIPENERAKO METODOLOGIA

Aurrera eramandako lanen jarraipena eta kontrola **Programaren 2 ekintza ardatzetan inplikaturiko Sailburuordetzei zuzenean informazioa eskatuz** egin da; ekimenen egoera, inpaktu-emaizak eta aurrekontu-exekuzioa alderatzeko helburuarekin.

Halaber, 2017an sortutako **2017-2020 Enplegua eta Suspertze Ekonomikorako Esparru-programaren Jarraipenerako Batzordearen** jardura mantendu da. Batzorde hau Lehendakartzaren Idazkaritza Nagusiak koordinatzen du, zeinaren barruan 4 Sailerako 9 Sailburuordetza dauden, Lehendakartza bera ere barne dagoelarik. Batzordeak 2018ko azaroan ohiko bilera egin zuen.

ESPARRU PROGRAMAREN EXEKUZIOAN ETA JARRAIPENEAN LAN EGITEN DUTEN GOBERNU-EREMUAK			
SAILBURUORDETZA	JARRAIPENERAK O BATZORDEA	JARDUEREI BURUZKO INFORMAZIOA	SAILA
Lehendakartzaren Idazkaritza Nagusia	X	X	Lehendakartza
Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia		X	
Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza		X	Gobernantza Publikoa eta Autogobernua
Funtzio Publikoaren Sailburuordetza	X	X	
Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza	X	X	Garapen Ekonomikoa eta Azpiegiturak
Industria Sailburuordetza	X	X	
Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetza	X	X	
Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetza		X	
Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza	X	X	Enplegua eta Gizarte Politikak
Ingurumen Sailburuordetza		X	Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza
Etxebizitza Sailburuordetza		X	
Ekonomia, Finantzak eta Aurrekontu Sailburuordetza	X	X	Ogasuna eta Ekonomia
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza		X	Hezkuntza
Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza	X	X	
Lanbide Heziketako Sailburuordetza	X	X	
Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetza		X	Osasuna
Turismo eta Merkataritza Sailburuordetza		X	Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa
Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetza	X	X	Lana eta justizia

3.


AURREKONTU-EXEKUZIOA ETA 2018AN LORTUTAKO INPAKTU-EMAITZAK

3.1 2018AN LORTUTAKO EMAITZEN IKUSPEGI OROKORRA

Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru-programa 2017-2020 aurrera eramateko 2018an erabili diren baliabide ekonomikoak 2.140 milioi eurokoak izan dira, honela banatuta:

1. ARDATZA. ENPLEGUA

305 M €	<u>Enplegu Plana</u>
18 M €	E TEak eta tokiko garapena
19 M €	E kintzailatza
42 M €	G azte Enplegua
65 M €	P restakuntza
82 M €	L an-munduan txertatzea
79 M €	R enove



HELBURUA: ENPLEGU GEHIAGO ETA HOBEA

% 10,3ko langabezia-tasa (2018ko IV. hiruhilekoa)

10.259 gazte lan-aukerarekin 2018an

2. ARDATZA. SUSPERTZE EKONOMIKOA

<u>4I Estrategia</u>	1.235 M €
I nbertsioa	605 M €
B errikuntza	430 M €
N azioartekotzea	24 M €
I ndustrializazioa	176 M €
A balak	600 M €

GUZTIRA 2.140 M € (% 98)

ENPLEGUA 305 M €
+
SUSPERTZEA 1.835 M €
Aurrekontua 1.235
Abalak 600

INPAKTU-EMAITZAK

- 18.344 lanpostu sortu dira laguntzei esker
- 10.259 gazte lanpostu sortu dira laguntzei esker
- 1.970 lagundutako enpresa berri
- 32 ikerketa-proiektu estrategiko berri finantzatu dira
- 349 ETerri lagundu zaie, kanpoko merkatuetara sartzen
- 875 ETerri lagundu zaie, berritzeko eta hedatzeko proiektuetan
- 1.635 berrikuntza-proiekturi lagundu zaie, ETetan.
- 40 azpiegitura-proiektu estrategiko exekuzioan

3.2 2018AN EXEKUTATUTAKO BALIABIDE EKONOMIKOEN IKUSPEGI XEHATUA

2018rako aurreikusitako baliabide ekonomikoei dagokienez, Esparru Programaren aurrekontu-exekuzio maila aurreikusitako aurrekontuaren % 98koa izan da. Ardatzen arabera, Enplegu Planak % 103ko aurrekontu-exekuzioa izan du, eta Suspertze Ekonomikorako Planek, guztira, % 96ko exekuzioa izan dute.

2017an eta 2018an exekutatutako baliabide ekonomikoak modu metatuan kontutan hartuz, aurrekontu-exekuzioaren aurrerapen-maila 2017-2020 aldirako aurreikusitako aurrekontu globalaren % 48koa izan da.

	2017-2020 aurreikusitako baliabide ekonomikoak (M €)	2017 exekutatutako baliabide ekonomikoak (M €)	2018 aurreikusitako baliabide ekonomikoak (M €)	2018 exekutatutako baliabide ekonomikoak (M €)	2017-2018 aldirako exekutatutako baliabide ekonomiko metatuak	2018ko exekuzio- maila 2018rako aurreikuspenaren arabera (%)	2017-2020 aldirako exekuzio-maila metatua, 2017- 2018 aldirako aurreikuspen orokorraren arabera (%)
I. Enplegu Plana (*)	1.175 M €	269 M €	297 M €	305 M €	574 M €	% 103	% 49
II. Suspertze Ekonomikorako Planak	5.225 M €	1.215 M €	1.291 M €	1.235 M €	2.450 M €	% 96	% 47
Aurrekontu-baliabideak guztira (I+II)	6.400 M €	1.484 M €	1.588 M €	1.540 M €	3.024 M €	% 97	% 47
Abalak (**)	2.400 M €	600 M €	600 M €	600 M €	1.200 M €	% 100	% 50
Baliabideak Guztira	8.800 M €	2.084 M €	2.188 M €	2.140 M €	4.224 M €	% 98	% 48

(*) Ez dira barneratu esparru operatibo hauei lotutako baliabide ekonomikoak: E.7- Enplegu publikoa, E.8- Enpleguaren kalitatearen hobekuntza eta E.9- Euskal enplegu sistemaren hobekuntza. Izan ere, esparru operatibo horiek ez daukate zuzeneko aurrekontu-edukirik edota barneko kosturik.

Enpresak, profesional autonomoak eta ETEak berriro finantzatzeko aurreikuspena, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuei buruzko abenduaren 22ko 5/2017 Legearen 9,2, artikuluan dagoena.

ENPLEGUAREN ETA SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ALDEKO ESPARRU-PROGRAMA EUSKADI 2020

2018 EXEKUTATUTAKO BALIABIDEEN GUZTIZKOA (milioi euro)

1. ARDATZA. ENPLEGUA

18 M €	E.1	ETE-AK, GIZARTE EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA
19 M €	E.2	EKINTZAILETZA SUSTATZEA
42 M €	E.3	GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA
65 M €	E.4	ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA
82 M €	E.5	LAN MUNDUAN TXERTATZEKO LAGUNTZAK
79 M €	E.6	RENOVE ERREHABILITAZIO-PROGRAMAK

AURREKONTUA

305 M €

1.235 M €

ABALAK
600 M €

GUZTIRA
2.140 M €

2. ARDATZA. SUSPERTZE EKONOMIKOA

S.1	INBERTSIOA	605 M €
S.2	BERRIKUNTZA	430 M €
S.3	NAZIOARTEKOTZEA	24 M €
S.4	INDUSTRIALIZAZIOA	176 M € 600 M € ABALAK

ENPLEGU PLANA

305 M €



4I ESTRATEGIA

1.235 M €

600 M €
ABALAK

3.3 ENPLEGU PLANAREN AURREKONTU-EXEKUZIOA

Enplegurako Planaren aurrekontu-exekuzioa 2018. urtean zehar **305 M €**-koa izan da; hau da, **2018rako aurreikusita zegoen aurrekontuaren % 103. 2017an eta 2018an exekutatutako baliabide ekonomikoak modu metatuan kontutan hartuz, aurrekontu-exekuzioak 2017-2020 aldirako aurreikusitako guztizkoaren % 49 suposatuko luke.**

Ekintza-arlo guztiek aurrerapen-maila handia ageri dute 2018ko urteko aurrekontu-exekuzioan. Exekuzio-maila altuena izan duen arloa gazte enpleguaren sustapena izan da (% 119); lan-munduan txertatzeko pizgarriek (% 108) eta enplegurako prestakuntzak (% 107) jarraituta. Beste arlo guztiek % 90eko edo gehiagoko aurrekontu-exekuzio maila izan dute.

1. ARDATZA. ENPLEGUA	2017-2020 aurreikusitako baliabide ekonomikoak (M €)	2017 exekutitutako baliabide ekonomikoak (M €)	2018 aurreikusitako baliabide ekonomikoak (M €)	2018 exekutitutako baliabide ekonomikoak (M €)	2017-2018 aldian exekutitutako baliabide ekonomiko metatuak	2018ko exekuzio-maila 2018rako aurreikuspenar en arabera (%)	2017-2020 aldirako exekuzio-maila metatua, 2017- 2018 aldirako aurreikuspen orokorraren arabera (%)
E.1. ETE-AK, GIZARTE EKONOMIA ETA TOKIKO GARAPENA	63 M €	14 M €	21 M €	18 M €	32 M €	% 88	% 51
E.2. EKINTZAILTZA SUSTATZEA	86 M €	19 M €	21 M €	19 M €	38 M €	% 90	% 43
E.3. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA	99 M €	20 M €	35 M €	42 M €	62 M €	% 119	% 62
E.4. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	282 M €	55 M €	61 M €	65 M €	120 M €	% 107	% 43
E.5. LAN MUNDUAN TXERTATZEKO LAGUNTZAK	298 M €	78 M €	76 M €	82 M €	160 M €	% 108	% 54
E.6. RENOVE ERREHABILITAZIO- PROGRAMAK	347 M €	83 M €	83 M €	79 M €	162 M €	% 95	% 47
GUZTIRA	1.175 M €	269 M €	297 M €	305 M €	574 M €	% 103	% 49

(*) 2017-2020 aldirako aurreikusitako aurrekontuak ez du barne hartzen 2017rako 1,2 milioi euro gehigarriko aurrekontu-aldaketa, 2017ko ekaineko aurrekontu-eztabaidan zuzenketa bidez onartu zena, koherentzia mantendu nahi baita 2017-2020 Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru Programan aurreikusitako zifrekin.

3.4 4I ESTRATEGIAREN AURREKONTU-EXEKUZIOA (ABALIK GABE)

4I Estrategiari dagokionez, **programen aurrekontu-exekuzio globala 1.235 M €-koa izan da; hau da, 2018rako aurreikusitako aurrekontuaren % 96.** Berrikuntza Planak izan du exekuziorik altuena (% 100), Industrializazio Planak jarraituta (% 98). Nazioartekotze Planak exekuziorik baxuena izan du, aurreikusitako aurrekontuaren %79koa, hain zuzen ere.

2017an eta 2018an exekutatutako baliabide ekonomikoak modu metatuan kontutan hartuz, aurrekontu-exekuzioak 2.450 M € suposatuko luke; hau da, 2017-2020 aldirako aurreikusitako guztizkoaren % 47.

2. ARDATZA. SUSPERTZE EKONOMIKOA	2017-2020 aurreikusitako baliabide ekonomikoak (M €)	2017 exekutatutako baliabide ekonomikoak (M €)	2018 aurreikusitako baliabide ekonomikoak (M €)	2018 exekutatutako baliabide ekonomikoak (M €)	2017-2018 aldirako exekutatutako baliabide ekonomiko metatuak	2018ko exekuzio-maila 2018rako aurreikuspenaren arabera (%)	2017-2020 aldirako exekuzio-maila metatua, 2017-2018 aldirako aurreikuspen orokorraren arabera (%)
S.1 INBERTSIOA	2.610 M €	613 M €	650 M €	605 M €	1.218 M €	% 93	% 47
S.2 BERRIKUNTZA	1.765 M €	418 M €	430 M €	430 M €	848 M €	% 100	% 48
S.3 NAZIOARTEKOTZEA	125 M €	28 M €	31 M €	24 M €	52 M €	% 79	% 42
S.4 INDUSTRIALIZAZIOA	725 M €	156 M €	180 M €	176 M €	332 M €	% 98	% 46
GUZTIRA	5.225 M €	1.215 M €	1.291 M €	1.235 M €	2.450 M €	% 96	% 47

3.5 2018KO INPAKTU-EMAITZEN IKUSPEGI OROKORRA

2018an Esparru Programak izandako inpaktu-emaitza nagusiak honako hauek dira: **18.344 enpleguren sustapenean, 10.259 gazterentzako lan-aukeretan, 32 ikerketa-proiektuen** finantzazioan, **349 ETE kanpoko merkatuetara sartzen** laguntzean, **875 ETE berritzeko eta hedatzeko proiektuen** garapenean laguntzean eta **1.635 ETE berrikuntza proiektuen** garapenean laguntzean. Halaber, 40 azpiegitura-proiektu estrategiko prestakuntzan, exekuzioan edo amaituta daude.

2017an eta 2018an zehar **lortutako metatutako emaitzak**, bai Enpleguaren ardatzean eta bai Suspertze Ekonomikoaren ardatzean, **onak izan dira**. Emaitzak lortzeko erritmoa mantenduz gero, 2017-2020 aldirako aurreikusitako inpaktu-helburuak beteko eta gaindituko lirateke.

1. ARDATZA, ENPLEGUA	ADIERAZLEAK	2017-2020 aurreikusitako inpaktua	2017ko emaitza errealak	2018ko emaitza errealak	2017-2018 aldirako emaitza metatuak	2017-2020 aldirako helburuak lortzeko aurrerapen-maila (%)
2. ARDATZA, SUSPERTZE EKONOMIKOA	Lagundutako lanpostuen guztizkoa	58.000 (*)	15.799	18.344	34.143	% 59
	Gazte enpleguak (lan aukerak)	20.000	6.856	10.259	17.115	% 86
	Lagundutako enpresa berriak	6.000	1.557	1.970	3.527	% 59
	Diruz lagundutako ikerketa-proiektu estrategiko berriak	100	35	32	67	% 67
	Lagundutako ETEak kanpoko merkatuetara sartzeko	1.200	245	349	594	% 50
	Lagundutako ETEak, batez ere industria-sektorekoak, berritzeko eta hedatzeko proiektuetan	1.100	431	875	1.306	% 119
	Lagundutako berrikuntza-proiektuak ETEtan.	4.100	1.294	1.635	2.929	% 71
	Azpiegituretan inbertitzeko proiektu estrategikoak (prestakuntzan, exekuzioan edo amaituta)	40	34	40	40	% 100

* Hasierako aurreikuspena laguntzei esker sortutako 45.000 lanpostukoa zen. Hasierako aurreikuspen horri 13.000 lanpostu gehitu zaizkio, Administrazio Orokorrerako, Osakidetzarako, Hezkuntzarako eta Ertzaintzarako antolatutako Lan Eskaintza Publikoetan barne hartutako lanpostuen ondorioz.

3.6 ENPLEGUAREN ARDATZAREN 2018KO INPAKTU-EMAITZEN IKUSPEGI XEHATUTA

2017-2020 ALDIRAKO KONPROMISO PUBLIKOAK		Adierazleak		Aurreikusitako helburuak 2017-2020	2017ko emaitza errealak	2018ko emaitza errealak	2017-2018 aldirako emaitza metatuak	2017-2020 aldirako helburuak lortzeko aurrerapen-maila (%)
1	Laguntzei esker sortutako 58.000 lanpostu*	1.1	Enpresa berriak sortzeari esker sortutako lanpostuen kopurua	12.000	3.713	3.904	7.617	% 63
		1.2	Etxebizitzaren eta ekipamendu publikoen errehabilitaziorako laguntza publikoekin lotutako lanpostuen kopurua	15.000	3.214	3.754	6.968	% 46
		1.3	Kontratazioa sustatzeko laguntzen bidez sortutako lanpostuen kopurua	18.000	4.651	6.324	10.975	% 61
		1.4	Lan Eskaintza Publikoetako lanpostu kopurua (txanda irekia).	13.000	4.221	4.362	8.583	% 66
		Laguntza bidez sortutako lanpostuak guztira		58.000	15.799	18.344	34.143	% 59
2	6.000 lagundutako enpresa berri	2.1	Mikro-ekintzailetza eta autonomo berrien kopurua	5.000	1.278	1.658	2.936	% 59
		2.2	Enpresa berritzaile berrien kopurua	1.000	279	312	591	% 59
		Lagundutako enpresa berrien kopurua		6.000	1.557	1.970	3.527	% 59

* Hasierako aurreikuspena laguntzei esker sortutako 45.000 lanpostukoa zen. Hasierako aurreikuspen horri 13.000 lanpostu gehitu zaizkio, Administrazio Orokorrerako, Osakidetzarako, Hezkuntzarako eta Ertzaintzarako antolatutako Lan Eskaintza Publikoetan barne hartutako lanpostuen ondorioz.

3.7 SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ARDATZAREN 2018KO INPAKTU-EMAITZEN IKUSPEGI XEHATUTA

2017-2020 ALDIRAKO KONPROMISO PUBLIKOAK		ADIERAZLEAK		2017-2020 aldirako aurreikusitak o helburuak	2017ko emaitza errealak	2018ko emaitza errealak	2017-2018 aldirako emaitza metatuak	2017-2020 aldirako helburuak lortzeko aurrerapen- maila (%)
3	Diruz lagundutako 100 ikerketa-proiektu estrategiko berri	3.1	Diruz lagundutako ikerketa-proiektu estrategiko berrien kopurua	100	35	32	67	% 67
		Diruz lagundutako ikerketa-proiektuak guztira		100	35	32	67	% 67
4	Lagundutako 1.200 ETE kanpoko merkatuetara sartzeko	4.1	Lagundutako ETEen kopurua nazioartekotze planen elaborazioan	200	28	24	52	% 26
		4.2	Lagundutako ETEen kopurua nazioartekotzerako proiektuak abian jartzeko ekintzetan	1.000	217	325	542	% 54
		Lagundutako ETEen guztizkoa kanpoko merkatuetara sartzeko		1.200	245	349	594	% 50
5	Lagundutako 1.100 ETE, batez ere industria-sektorekoak, berritzeko eta hedatzeko proiektuetan	5.1	Ekoizpen-prozesuen hobekuntzan berrikuntza teknologikoko proiektuak dituzten ETEen kopurua	1.000	371	404	775	% 78
		5.2	Hazteko eta hedatzeko proiektuak dituzten ETEen kopurua	70	51	443	494	% 706
		5.3	Zailtasunak dituzten lagundutako ETEen kopurua	30	9	28	37	% 123
		Lagundutako ETEen kopurua berritzeko eta hedatzeko proiektuetan		1.100	431	875	1.306	% 119
6	Lagundutako 4.100 berrikuntza-proiektu ETEtan.	6.1	Kudeaketa aurreratuko, berrikuntzako eta lehiakortasun proiektuak dituzten ETEen kopurua	600	410	730	1.140	% 190
		6.2	I+G proiektuekin eta produktu berriak garatzeko proiektuak dituzten ETEen kopurua	3.500	884	905	1.789	% 51
		Lagundutako ETEen berrikuntza-proiektuen guztizkoa		4.100	1.294	1.635	2.929	% 71

3.8 GAZTE ENPLEGUAREN 2018KO INPAKTU-EMAITZEN IKUSPEGI XEHATUTA

Gazteen enpleguaren ikuspuntutik, **2018an zehar, 10.259 gazteri lan aukera bat eskaini zaie hainbat programaren bidez**, besteak beste, beraien titulazioarekin lotutako lanpostuetarako enpresen aldetiko kontratazioa, ekintzailetza gaztea, hezkuntza-arlotik lan-mundura igarotzeko lehenengo esperientzia, nazioarteko esparruan esperientzia praktikoa lortzeko bekak eta langileen berrikuntza Lan Eskaintza Publikoen eta txanda-kontratuen bidez. **Eraitza hauek, 2017an lortutakoekin batera, % 86ko ekarpena egiten diete 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako helburuei**; beraz, interpretazio positiboa eginez, eraitzek erritmo horretan jarraituz gero, 2017-2020 aldirako aurreikusitako helburuak bete eta gainditu egingo liratekeela estima daiteke.

Inpaktu-adierazleak	Aurreikusitako inpaktua 2017-2020	Eraitzak 2017/12/31 datan	2018/12/31ko eraitzak	2017-2018 aldirako eraitza metatua	2017-2020 aldirako helburuak lortzeko aurrerapen-maila (%)
Lehen Aukera programaren bidez kontratatutako gazteen kopurua	3.000	498	309	807	% 27
Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizio-programan parte hartu duten gazteen kopurua	5.000	2.166	4.938	7.104	% 142
Gazte ekintzaileen kopurua	3.500	847	1.050	1.897	% 54
Tokiko eta Eskualdeko Enplegu Planen bidez kontratatutako gazteen kopurua	2.500	834	1.088	1.922	% 77
Lan Eskaintza Publikoetan barne hartutako gazteei zuzendutako lanpostuen kopurua	3.200	1.868	2.045	3.913	% 122
Txanda-kontratuen onuradun izan diren gazteen kopurua	400	31	47	78	% 20
Gazteen itzulerarako programan parte hartu duten gazteen kopurua	200	Hasiera 2018an	6	6	% 3
Prestakuntzarako eta enplegurako beketan parte hartu duten gazteen kopurua	1.800	612	743	1.355	% 75
Sektore espezifikoetara zuzendutako laguntza-programen onuradun izan diren gazteen kopurua	400	Hasiera 2018an	33	33	% 8
Lan-aukera bat izan duten gazteak guztira	20.000	6.856	10.259	17.115	% 86

4.

GARATUTAKO JARDUERA NAGUSIAK

4.1 ENPLEGUAREN ARDATZEAN GARATUTAKO JARDUERA NAGUSIAK:

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoa 2017ko azaroaren 28an onartu zen, 1.175 M €-ko aurrekontu globalarekin 2017-2020 aldirako. 2018ko aurrekontu-exekuzioa 305 M €-koa izan da, eta jarduerak hauek nabarmendu dira:

1

2018RAKO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA ONARTZEA

Gobernu Kontseiluak euskal administrazio osorako **2018ko Lan Eskaintza Publikoa** onartu zuen 2018ko abenduaren 18an; osasunaren, hezkuntzaren, segurtasunaren eta administrazio orokorraren arloetan; **4.402 lanpostu** eskainiz, 4.362 txanda librekoak eta 40 barne-igoerakoak. Lanpostu horiek 2019an eta 2020an zehar beteko dira hainbat deialdiren bidez. Hezkuntzarako 2.408 lanpostu esleituko dira, osasunarentzako 1.083, segurtasunerako 500 eta administrazio orokorrerako 337. Lan-eskaintza publiko honek Uraren Euskal Agentziarako 65 lanpostu eta EITBrako 9 lanpostu hartzen ditu barnean.

2

KUALIFIKAZIO BAXUA DUTEN GAZTEEN GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA AKTIBATZERA ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA-EKINTZAK

Kualifikazio baxua duten langabetu gazteen gizarteratzea eta laneratzea aktibatzea zuzendutako prestakuntza-ekintzen programa berria diseinatzea. Laguntza horien hartzailleak hauek dira: 16 eta 25 urte bitarteko gazteak, DBH egin ez dutenak eta, arrazoi ezberdinak direla eta, oinarritzko gaitasun faltagatik enplegurako prestakuntzarekin jarraitzeko aukerarik ez dutenak. Helburua, beraz, zera da: oinarritzko gaitasun sozio-pertsonaletan eta tekniko-profesionaletan prestakuntza ibilbideak sortuko dituzten prestakuntza-proiektuak sustatzea, horiei esker kualifikazio baxua duten gazteen gizarteratzea eta laneratzea eta haien garapen pertsonala erraztuko baita; eta baita 2. mailako ziurtagirietarako sarbidea ere. Prestakuntza-ibilbideek 1.850 orduko iraupena dute, lan-zentroko prestakuntza barne hartuz.

Programaren lehenengo deialdia azaroan argitaratu da, 13 prestakuntza ibilbide laguntzeko asmoarekin, honako gai hauetan: zura eta zurgintza, elektrizitatea, mekanizazioa, iturgintza, sukaldaritza eta merkataritza. Batez bestez, 15 gaztek parte hartuko dute ibilbide bakoitzean. Jardun hauek 2019an jarriko dira martxan.

3

ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZAK

Enplegarritasuna hobetzea eta langabetuen kontratazioa sustatzea Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen bidez; besteak beste, **enplegua sustatzeko tokiko erakundeek** aurrera eramaten dituzten jarduerak (3 eta 6 hilabete arteko kontratuak), **tokiko enpresen aldetiko kontrataziorako** pizgarriak (gutxienez, 3 hilabeteko iraupena duten kontratuak), eta oinarri teknologikoa duten edo berritzaileak diren tokiko enpresa pribatuen enpresa-proiektu estrategikoak garatzea (gutxienez, 6 hilabeteko iraupena duten kontratuak).

2018ko deialdia ekainean argitaratu zen, **eta ondorioz, enplegarritasuna hobetu zen eta guztira 2.288 pertsona kontratatu ziren** (% 56 emakume eta % 44 gizon). Programa honek ekintza positiboko irizpideak barne hartu ditu, kontratatutako pertsona guztien % 40 gutxienez emakumeak izan daitezen ezarrita.

EKINTZAILEEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZA-PROGRAMA (LANBIDE)

Ekintzailetza eta kultura ekintzailea sendotzea, Tokiko Ekintzailetza Proiektuen esparruan, **ekintzaile izan daitezkeen pertsonei laguntza emanez haien negozioen ideia abian jartzeko fasetan zehar**. Programa honek 4 laguntza-ildo espezifiko ditu, arlo hauekara zuzenduta daudenak: negozioaren ideia sortzeko, aztertzeko eta egituratzeko lehenengo fasera; dagoeneko negozioaren ideia finkatuta duten enpresa-negozio berriak abian jartzearen sustapenera; jarduera hasi ahal izateko beharrezkoak diren aktibo finkoen finantzaketaren bidez proiektuak ezartzera; eta jarduera duela gutxi hasi duten eta negozioaren gutxieneko errentagarritasuna bermatzeko laguntza behar duten pertsonen enpresak finkatzera.

2018ko deialdiak, urrian argitaratu zenak, **357 ekintzaile** lagundu ditu (166 gizon eta 191 emakume) **haien negozio ideia garatzen, 205 pertsona** (99 gizon eta 106 emakume) **negozioa martxan jartzen, 111 pertsona** (56 gizon eta 55 emakume) **proiektua ezartzen eta 846 pertsona** (477 gizon eta 369 emakume) **haien negozioa finkatzen**. Programa honek ekintza positiboko irizpideak barne hartu ditu, laguntzen zenbatekoa % 15ean areagotuz eskatzailea emakumea denean.

PRESTAKUNTZA KONTRATATZEKO KONPROMISOAREKIN

Prestakuntza espezifikoa, enplegurako lanbide heziketaren esparruan; behin kontratatzen direnean, enpresetan gauzatuko dituzten prozesuetan eta lanetan modu espezifikoan prestakuntza duten pertsonak barneratu behar dituzten enpresetara moldatutakoa. Beraz, helburua enpresen behar zehatzei erantzuna erraztea da, kualifikazio berezia behar duten lanpostuetako profiletan, langile horiek modu eraginkorrean enpresetan sar daitezzen. Programa honek, gutxienez ere, parte-hartzaileen % 50aren kontratazio-konpromisoa ezartzen du; 6 hilabeteko gutxieneko iraunaldiarekin, lanaldia osoa bada, eta iraunaldi baliokidearekin lanaldia partziala bada.

2018ko deialdia, ekainean argitaratu zena, **50 prestakuntza-ekintzen garapena lagundu du; non 671 pertsonek parte hartu duten** (% 44 gizon eta % 61 emakume), lan kontratua egiteko 456 konpromiso/eskaintza izan dutenak (behin behineko datua). Aipatzekoa da emakumeak lehentasunezko kolektibotzat hartu izan direla; hauek, gutxienez, langabetuen guztizkoan duten proportzio berean parte hartzeko helburuarekin.

4.2 SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ARDATZEAN GARATUTAKO JARDUERA NAGUSIAK INDUSTRIALIZAZIOA

Plangintzarako 2 tresna onartu dira: **“Basque Industry 4.0” 2017-2020 Industrializazio Plana**, 2017ko uztailaren 18an onartuta, 1.225 milioi euroko aurrekontuarekin; eta **Euskadiko Ekintzailatzarako Institutuzioen Arteko Plana 2020**, 2017ko ekainaren 27an onartuta, 295 milioi euroko aurrekontuarekin.

:

1

EZKERRALDEKO BIZKAIKO TEKNOLOGIA PARKEA HEDATZEA

Ezkerraldeko Bizkaiko Teknologia Parkearen hedapena (Ezkerraldea-Meatzaldea) **Euskadiko Teknologia Parkeen Sarearen 2017-2020 Plan Estrategikoaren proiektu nagusietako bat da, eta horretarako aurreikusten den aurrekontua 26 milioi eurokoa da 2018-2020 aldirako**. Campus berria, Abanton dagoena eta apirilean eraikitzen hasi dena, **4.0 Industrian eta fabrikazio aurreratuan espezializatuta egongo da. Bere helburua Ezkerraldeko eta Meatzaldeko funtsezko eragile izatea da**, eskualdearen eta inguruaren enplegua eta ekonomia era aktiboan dinamizatuz. Parke berria 10-15 urte barru guztiz okupatuta egongo dela estimatzen da. Horri esker, balio erantsi handiko 2.000 lanpostu sortuko dira eta 800 milioi euroko fakturazioa erregistratuko da.

Parke berriaren eraikin nagusiak Euskadiko energiaren sektoreko enpresen nazioarteko lehiakortasuna eta lidergoa bultzatzeko zentro berriaren, “Energy Intelligence Center”-en, instalazioak hartuko ditu. Zentro hori Bizkaiko Foru Aldundiaren energiaren sektoreko ekimen estrategikotzat hartzen da, eta I+G+b proiektuak eta ezagutza teknologikoa garatzeko esparru malgu gisa konfiguratu nahi da.

2

2018-2020 MUGIKORTASUN ELEKTRIKOAREN PLAN INTEGRALA ONARTZEA

2018-2020 Mugikortasun Elektrikoaren Plan Integrala, uztailaren 30ean Gobernu kontseiluak onartutakoa, **balio-kateaosatzen duten eragile publiko eta pribatuekin modu koordinatuan mugikortasun elektrikoa sustatzeko helburuarekin** diseinatu da. Plana bideratzeko 63 ekimen planteatu dira, energia dibertsifikazioa, sare elektrikoaren kudeaketa adimentsua eta negozio-eredu berriak sortzeko automobilgintzaren sektoreko eraldaketa industrial erraztera zuzenduta daudenak.

Aurreikusitako **aurrekontua 494 milioi eurokoa da**, batez ere, hauetan erabiliko dena: **garraio publikoaren elektrifikazioan, birkarga-puntu sare baten sorreran eta partikularrentzako, enpresentzako eta administrazio publikoentzako ibilgailu elektrikoaren erosteta sustatzera**. Horiek horrela, Planak 2020rako honako egoera hau aurreikusten du: matrikulatutako 4.800 ibilgailu elektriko, potentzia handiko 35 birkarga-puntu Euskadin eta taldekako garraio elektrikoa erabiltzen duten bidaiarien % 20ko igoera. Halaber, Plana 2030. urtera proiektatzeko konpromisoa gehitu da, bere helburuak eguneratuz eta ekintza berriak barneratuz.

“BASQUE CYBERSECURITY CENTRE” ZIBERSEGURTASUNERAKO EUSKAL ZENTROA ABIARAZTEA

Zibersegurtasun Euskal Zentroak, SPRI Taldean integratuta dagoenak, Miñanoko Teknologia Parkean dituen instalazioak inauguratu ditu 2018ko uztailean. Bere helburuak hauek dira: zibersegurtasunarekin lotutako enpresa-sektorea dinamizatzea eta sendotzea, Euskadi zibersegurtasunaren nazioarteko erreferente gisa ezartzea eta segurtasun informatikoaren kultura sustatzea. 2018an zehar, bere jardura sendotu du, **Europako eskualdeen arteko eta tokiko lankidetzak publiko eta pribatuko ekimenen buru izanik. Halaber, zibersegurtasuna eskatzen eta eskaintzen dutenen arteko topagune gisa funtzionatzen du; izan ere, “Basque Digital Innovation Hub” zibersegurtasun nodoa bultzatzeko 5 laborategi abiarazi ditu.**

Gainera, Zentroak industriaren arloan segurtasun informatikora bideratutako lehen laguntza-programa diseinatu du SPRI Taldearekin batera; **IT/OT (Information Technology/Operational Technology) eremuetarako zibererasoen kontrako babes-sistemen integrazioa eta bateratasuna lantzen duten proiektuei laguntza** emanez, manufakturaaren arloko enpresa industrialetan. Lehenengo deialdia 2018ko ekainean argitaratu zen, 600.000 €-ko hasierako aurrekontuarekin; hardware, software eta aholkularitza edota ingeniarietako zerbitzuak gastuen eta inbertsioen % 50 finantzatzeko erabiliko zirenak. Proiektu bakoitzeko aurrekontu-muga 18.000 € izan zen. **Guztizko aurrekontua milioi bat eurora handitu zen eskaeren kopuru handiagatik; eta, guztira, 102 enpresa lagundu ditu.** 2,34 milioi euroko inbertsio pribatua mugiarazi duela estimatzen da.

EGOERA OKERRA BIZI DUTEN EUSKADIKO ZONALDEETARAKO TALKA-PLANA ONARTZEA

Egoera okerra bizi duten Euskadiko zonaldeetarako Talka-plana zehaztea eta onartzea. Plan horren helburua **Ezkerraldea eta Meatzaldea eta Oarsoaldeako eskualdeen beharrei berehalako erantzuna ematea da; hauek, Euskadiko beste lurraldearekin alderatuta, egoera ahulagoa baitute.** Planak 64,1 milioi euroko ezohiko inbertsioa aurreikusten du 2018-2019 aldirako, eta bi eskualde horien 17 udalerritarako. Inbertsio horri esker, **gune horietan dagoeneko abian diren beste neurri batzuekin batera, ekimen berriak edota espezifikoak garatuko dira.** Plan hau oinarritzat hartuko da eskualde hauen garapen sozioekonomikorako Erakunde Arteko Plan Estrategikoa egiteko.

Ekimen multzo honen helburua honako gai hauetan laguntzea da: suspertze ekonomikoan, enpleguaren sorreran, garapen sozialean, prestakuntza-mailaren igoeran, etxebizitza-parkearen kalitatearen hobekuntzan, turismorako eta merkataritzarako kokapen berrien aukeren suspertzea. Kaltetutako udalen eta gertuko eskualdeen artean sinergiak bilatuz, ikuspuntu integratzailea sustatze aldera. Planak Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien, kaltetutako udalen udaletxeen eta Eskualdeko Garapen Agentzien babesa dauka.

EUSKADIKO GASTRONOMIA ETA ELIKADURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2020 MARTXAN JARTZEA

Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa 2020k helburu garbia dauka: **Euskadiko elikaduraren eta gastronomiaren urrezko lau arauak (segurua, osasungarria, berezia eta iraunkorra, sozialki, kulturalki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik) lantzen jarraitzea, elikaduraren balio-katearen paradigma edo ikuspuntu berria erabiliz.** Hau da, prozesu osoa aintzat hartzea planteatzen du: lehen ekoizpenetik hasita elikagaien kontsumora arte, eraldaketa, banaketa eta merkaturatzea ahaztu gabe, gastronomiara helduz.

Plana diseinatzeko eta martxan jartzeko, sektoreko eta erakundeetako eragile nagusien parte-hartzea eta inplikazioa ezinbestekoa da. Helburu nagusitzat hau ezarri da: gastronomiaren elikaduraren balio-kateak euskal BPGd-an duen pisua 4 urtetan % 12raino igotzea; gaur egun, pisu hori % 10,5ekoa da. Aurreikusitako guztizko aurrekontua 2.457 milioi eurokoa da, zeinetatik **357 milioi Eusko Jaurlaritzak egindako ekarpenak diren.**

4.3 SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ARDATZEAN GARATUTAKO JARDUERA NAGUSIAK: BERRIKUNTZA

1

BILBOKO ESS ZENTROAREN GAINEKO LANKIDETZA HITZARMENERA ERANSKINA BALIOZKOTZEA

2018ko martxoaren 6ko Gobernu Kontseiluak hitzarmenaren-proposamena onartu zuen, zeinaren bidez eranskina **Estatuaren Administrazio Nagusiaren eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren arteko Europako Neutroien Espalazio Iturriaren (ESS – Bilbao European Spallation Source Bilbao)** eraikuntzarako, ekipamendurako eta ustiapenerako lankidetzak hitzarmenera baliozkotzen den.

Fase berri honetan, ESS Bilbao Zentroak Lund-eko (Suedia) neutroien espalazio iturriarako eraikuntzarako adostutako ekarpenei aurre egin behar dienean, Gobernu Zentralak eta Eusko Jaurlaritzak erakutsi dute instalazio honekin eta Europako ERIC Partzuergoarekin (European Research Infrastructure Consortium) duten konpromisoa. Horri esker, Espainia Europako partzuergoan bazkide sortzaile eta eskubide osoko kide gisa sartuko da. Bi administrazioek zehaztu dituzte hartutako akordioak betetzeko beharrezkoak diren ekarpen ekonomikoak: Espainiako Gobernuak 42 milioi euroko ekarpena egin beharko du eta Eusko Jaurlaritzak 22 milioi euroko ekarpena egin beharko du. Eraikuntza 2025ean bukatzea aurreikusten da.

2

BASQUE RESEARCH AND TECHNOLOGY ALLIANCE (BRTA) - EUSKAL PARTZUERGO ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOAREN ESTATUTUAK ONARTZEA

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planaren esparruan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak Euskal Partzuergo Zientifiko-Teknologikoaren, Basque Research and Technology Alliance (BRTA), sorrera bultzatu du. Partzuergo horren estatutuak 2018an onartu ziren. **Partzuergoa** 2019ko lehenengo hiruhilabetekoan **eratu dela aurreikusten da**, SPRI-Enpresa-garapenerako Euskal Agentziaren, 12 Zentro Teknologikoren, Ikerketa Kooperatiboko 4 Zentroyen eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien atxikimenduari esker.

Hauek izango dira Partzuergoaren funtzio nagusiak: aliantzara atxikitzen diren eragile teknologikoen arteko koordinazioa sustatzea, haien jarduerak lerrokatzea eta bateratzea, enpresei ezagutza transmititzeko eta ezagutza hori sortzeko baldintzak sendotzea eta, eremu teknologikoan, nazioarteko proiektzioa izango duen marka propioa proiektatzea. Halaber, Ikerketarako Agenda eta Transferentziarako eta Merkaturako Agenda formulatuko ditu, partzuergoa osatzen duten eragileen unitateekin batera.

3

BASQUE DIGITAL INNOVATION HUB PLATAFORMA AURKEZTEA

Basque Digital Innovation Hub (BDIH) Basque Industry 4.0 Estrategiaren esparruan jaiotako ekimena da, eta bere helburua **euskal ETEetan 4.0 teknologiak barneratzea** da. Horretarako, BDIH ekimenak ETEen zerbitzura jartzen du azpiegiturak, laborategiak, ekipamenduak, software-a eta fabrikazio aurreratuaren inguruan berritzaileak diren gaitasun zientifiko-teknikoak dituen konektatutako aktiboen sarea. Plataforma 2018an abiarazi da eta **6 nodo teknologikotan edo ezagutza eremutan banatu da: robotika kolaboratiboa eta malgua, fabrikazio gehigarria, zibersegurtasuna, datuen analisia, konektatutako makina adimentsuak eta material berriak**. Lehenengo 3 nodoak martxan dira dagoeneko.

AZPIEGITURA ZIENTIFIKO BERRIAK ABIAN JARTZEA

2018an zehar, gastronomiaren, zientzia fisikoen eta osasun-ikerketaren eremuko **ikerketarako 3 azpiegitura zientifikoren instalazio berriak inauguratu dira.**

- **Biocruces Bizkaia Ikerketarako Institutua**, Bizkaiko ikerketa eraikin berrian berregituratuz, eta Gurutzetako, Basurtuko eta Galdakaoko ikerketa-jarduera bateratuz. Eraikin berri honek 18 milioi euroko inbertsioa izan du, osasun ikerketan eta berrikuntzan puntakoak diren ekipamenduak eta teknologiak erosteko erabili izan direnak. Horri esker, gaixoen osasunaren alde emaitzak aplikatzea bilatzen duen biomedikuntzako ikerketaren eta ikerketa traslazonalaren motore gisa kokatu da. 800 ikertzaile inguruk osatzen dute institutua.
- **Basque Culinary Center-eko BBC Innovation-ek, Gastronomiaren Sektoreko Zentro Teknologikoak**, helburu hauek ditu: gastronomiari eta sukaldaritzako esperientziari buruz ikertzea eta ezagutza sortzea, enpresetan berrikuntza bultzatzea eta sektorean enpresa berrien sorrera eta ekintzailatza sustatzea. Zentroak, mundu-mailan ezaugarri hauek dituen lehena denak, 25 pertsonen osatutako taldea dauka; eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean barneratu da. 40 enpresa eta erakunde baino gehiagorekin lan egiten du, estatuko eta nazioarteko beste erreferentziazko ikerketa zentroekin aliantzan, proiektu publiko eta pribatu bidez.
- **Donostia International Physics Center (DIPC) zentroan kokatutako Atlas superkonputagailua**, zentroaren potentzia hiru bider areagotzea lortu duena. Estatu-mailako 5 superkonputagailu indartsuenetarikoa bat bilakatu da. 180 ikertzailek baino gehiagok erabiltzen dute tresna berri hau, bai DIPCrena eta baita Euskadiko edo Ikerbasqueko beste BERC ikerketa zentroena. Horrela, material aurreratuak hainbat baldintzatan zein jarrera duten simulatu daiteke; eta baita dimentsio handiko sistemena, besteak beste, galaxia edo zulo beltzena, edo neutrinoak bezalako dimentsio txikiko partikulena ere.

OSASUNTU ZAHARTZEKO BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO CAREWELL PROIEKTUAREN ONARPENA

“Carewell” proiektua, “Premia konplexuak dituzten paziente pluripatologikoen arreta integraturako eredu bat garatzea”, Euskadi buru duelarik, Europan azken hamarkadan, osasuntsu eta aktibo zahartzeko berrikuntza teknologikoaren eta ikerketaren eremuan, eragin handien izan duten 3 proiektuetako bat dela aitortu du Europar Batzordeak. Bere emaitza nagusien artean, nabarmena da proiektuak arreta integratuak biztanleria nagusiaren bizi kalitatea hobetu dezakeela probatu duela; arreta integratua IKTetan laguntzen bada eta profesionalen eta gaixoen arteko komunikazio-kanalak hobetzen badira, hau onuragarria izango dela enpirikoki frogatuz. Gainera, eredu hau Europako beste eskualde batzuetara eta beste osasun eta erreta sozialeko beharrak dituzten biztanleria-taldeetara transferitzeko aukera baloratu da.

Ekimen hori Osakidetza eta Osasun Sailaren ildo estrategikoen barruan dago, eta zahartzean, kronikotasunean eta mendekotasunean jartzen du arreta. Proiektuan hauek parte hartzen dute: ‘Kronikagune’ Kronikotasunaren arloko Ikerketa Zentroa, Osakidetza 6 erakunde, Lehen Mailako Arretako Ikerketa Unitatea eta Gipuzkoako ESlak eta Osakidetza 6 Erakunde Zentrala.

4.4 SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ARDATZEAN GARATUTAKO JARDUERA NAGUSIAK: NAZIOARTEKOTZEA

1

NAZIOARTEKOTZEKO ESPARRU ESTRATEGIA 2020-EUSKADI BASQUE COUNTRY EGUNERATZEA

Nazioartekotzeko Euskal Estrategia 2020ren eguneratzea 2014an sortutako Estrategia nazioarteko testuinguru berrira moldatzearen beharretik sortu da; eta helburua XI. Legegintzaldiaren 2016-2020 Gobernu-programan zehaztutako Eusko Jaurlaritzaren nazioartekotze konpromisoen eta ikuspegiaren koherentzia mantentzea da. Eguneratzea nazioartekotze-ekosistemaren eragile nagusien parte-hartzearekin egin da, biztanleriaren ekarpenak jasotzeko prozesua irekiz eta Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordearen bidez gizartearen ikuspegia integratuz.

Erakunde mailako kanpo harremanek, enpresen nazioartekotzeak, kulturak eta turismoak Estrategiaren pisua izaten jarraitzen dute, eta Garapenerako Kooperazioa eta Kirola eremuak gehitu zaizkie. Halaber, NBERen Garapen Jasangarriaren Helburuekin lerrokatuta dauden Euskadi Basque Country 2030 Agendan zehaztutako erronka globalei laguntza emateko konpromisoa barneratu da.

Eguneratzea abian jartzeko, nazioartekotzean sakondu behar izan da, kanpoaldean bereziki aktiboak diren zenbait eremutako sektoreko planak zehaztearen eta onartzearen bidez hedatu daitekeen egituratutako jarduera sistematiko gisa. Testuinguru horretan, Kanpo Harremanetarako Plana 2018-2020 berria zehaztu eta onartu da, Estrategiaren esparruan sektoreko beste plan batzuk definitzeko aurreikuspenarekin.

2

NAZIOARTEKOTZEKO EUSKAL AGENTZIAREN MERKATARITZA-BULEGOA IREKITZEA MILANEN

2017-2020 Enpresa Nazioartekotze Planak Italia nabarmentzen du euskal industriarako lehentasunezko herrialdeen artean. Milanen merkataritza-bulego bat irekitzearen helburua da **euskal enpresek herrialde horretan duten merkataritza-jarduera areagotzea**; makina-erreminta eta automobilgintza bezalako **puntako teknologia duten sektoretan negozio-bide berriak** bilatuz, eta **aeronautikaren, manufaktura aurreratuaren eta robotikaren sektoreetan sinergiak** bilatuz, Italiak eta Euskadik berdintasunak baitituzte hiru sektore horietan.

Bulego berria bere funtzioetarako aldekoa den enpresa-ingurunean kokatu da; eta Nazioartekotzeko Euskal Agentziaren kanpoko sarera gehitu da, gaur egun 17 merkataritza-ordezkaritza dituen SPRI Taldearen barnean dagoena.

3

EUSKADI FABRIKAZIO AURRERATUAREN EUROPAKO PARTZUERGOAREN NODO GISA AUKERATZEA (EIT MANUFACTURING PROIEKTUA)

Europar Berrikuntza eta Teknologia Institutuak (EIT) **Euskadi aukeratu du EIT Manufacturing nazioarteko proiektuaren nodoetako bat izateko. Proiektu honek Europako fabrikazio aurreratuan mundu-mailako erreferente izango den berrikuntza-sarea sortzea du helburu.** Proiektuak 80 milioi euroko hasierako aurrekontua dauka, zeinetatik 15 milioi Euskadiko nodoari dagozkion. Nodo hori kudeatzeko Nazioarteko Partzuergo bat sortuko da, 17 herrialdetako 50 eragile izango dituen, besteak beste, zenbait euskal enpresa: Tecnalia, Aernnova, Mondragón Korporazioa, IK4 Research Alliance edo ITP Acero. Euskadiko egoitza Donostian egongo da eta Frantzia, Portugal eta Espainiaren arteko lankidetzak koordinatuko du. Ekimen honen azken helburua zera da: I+G kooperazioaren, prestakuntzaren eta negozio berrien sorreraren inguruan proiektuak sortzea eta sustatzea, robotika, digitalizazioa eta fabrikazio gehigarria jarduera-ardatz nagusiak direlarik.

EUSKADI BASQUE COUNTRY 2030 AGENDA AURKEZTEA

Gobernu Kontseiluak apirilean onartu zuen Euskadi Basque Country 2030 Agenda, eta **NBEk bere 2030 Agendaren bidez sustatutako Garapen Jasangarriaren Helburuei euskal ekarpen gisa** zehaztu da. Eusko Jaurlaritzak konpromiso hau islatu duen Estatuko lehenengo administrazio publikoa izan da; horretarako proposamen integratzailea, zeharkakoa, zehatza, argia, aldi baterakoa, parte-hartzailea, moldagarria eta nazioartekoa eginez. Proposamenak Gobernuaren mailen politika-borondatearen eta erantzukizunen aldeko maila anitzeko gobernantza barneratzearen alde egiten du.

Eusko Jaurlaritzak testuinguru horretan definitzen duen lehenengo agenda da baita ere, Garapen Jasangarriko Helburuekin lotura estuagoa duten Gobernu-programako helburu eta konpromisoetan arreta handiagoa jarritz. Gainera, helburu eta konpromiso horien jarraipen espezifikoa egingo da Agendan bertan zehaztutako gobernantza ereduaren bidez. Horrela, Eusko Jaurlaritzak bere Gobernu-programan hartutako konpromisoetatik 93, 80 Planifikazio-tresna, 19 Legegintza-ekimen eta 50 adierazle lotu dira.

ERAKUNDEEN NAZIOARTEKO JARDUERA

2018an zehar, erakundeen nazioarteko hainbat jarduera egin izan dira. Hauek dira nabarmenenak:

- **Lehendakariaren bisita Argentinara eta Txilera**, instituzio-agenda mantentzeko eta Euskal Aste Nazionalen parte hartzeko, Argentinako eta Txileko agintari nagusiekin bilerak barne.
- **Euskadi Learning Tour 2019**, ordezkari politikariez, enpresa-elkartez eta heziketaren munduko elkarte osatutako Kolonbiako diziplina anitzeko taldearekin. Testuinguru horretan, instituzio-, enpresa- eta kultura-mailako bilerak egin ziren 3 Lurralde Historikoetan.
- **Eusko Jaurlaritzak atzerrian dituen ordezkariak omenaldia egiteko ekitaldi instituzionala**, New Yorkeko eta Buenos Aireseko ordezkariak 80. Urteurrena dela eta. Ekitaldia Lehendakariaren egoitza egin zen, Kanpo harremanetarako eta gobernuetako euskal ordezkariak arduradunekin.
- **Galeseko Gobernuarekin “Elkar-ulermenerako Memoranduma”** sinatzea, politika fiskalaren, industrialaren eta garraio eta gizarte politiken inguruko harremanak estutzeko; eta Euskadiren eta Flandiaren arteko lankidetzaren egoera aztertzea, haien “Elkar-ulermenerako Memorandumaren” esparruan.
- **Mie Prefekturarekin (Japonia) “Elkar-ulermenerako Memoranduma”** sinatzea, ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren eremuetan lankidetzarako bideak bilatzeko; eta baita politika industrialaren eremuan, automobilgintza, aeronautika edo manufaktura aurreratua bezalako sektoreetan; 4.0 industrian, material aurreratuak, robotika eta automatizazioan; bioteknologiaren; eta elikaduran.
- **15 herrialde baino gehiagoren enbaxadoreen bisitaldi instituzionala**, besteak beste, Erresuma Batua, Irlanda, Suitza, Norvegia, Austria, Eslovenia, Georgia, Kazakhstan, Pakistan, Israel, Estatu Batuak, Dominikar Errepublika, Costa Rica, Kuba eta Argentina

5.

INBERTSIORAKO 40 PROIEKTU ESTRATEGIKO

5.1 INBERTSIORAKO 40 PROIEKTUEN EXEKUZIOAREN IKUSPEGI OROKORRA

Esparru-programak 2017-2020 aldian garatu beharreko inbertsiorako 40 proiektu estrategiko hautematen ditu, 4 ardatz nagusitan sailkatuta, azpiko laukian ikus daitekeen moduan. **40 proiektuak 2017 eta 2018 artean hasi dira, 694 M €-ko metatutako aurrekontu-exekuzioarekin; hau da, 2017-2020 aldirako aurreikusitako aurrekontuaren % 61.**

ARDATZAK		Proiektuak guztira (kopurua)	Aurreikusitako aurrekontua 2017-2020 (M €)	2017 exekutututako aurrekontua (M €)	2018.12.31n prestakuntzan, exekuzioan edo amaituta dauden proiektuak (kopurua)	2018 exekutututako aurrekontua (M €)	2017-2018 aldian exekutututako aurrekontu metatua (M €)	Metatutako exekuzio-maila, 2017-2020 aldirako aurreikuspen orokorraren arabera (%)
1.	Azpiegitura ekonomikoak eta mugikortasuna	16	930 M € (*)	409 M €	16	119 M €	529 M €	% 57
2.	Hiri- eta ingurumen-berroneratzea	13	126 M €	20 M €	13	14 M €	34 M €	% 27
3.	Lehen eta bigarren hezkuntza-azpiegiturak hedatzea	3 (**)	44 M €	23 M €	3	15 M €	38 M €	% 86
4.	Osasun-azpiegiturak hedatzea	8	39 M €	48 M €	8	45 M €	93 M €	% 238
GUZTIRA		40	1.139 M €	500 M €	40	193 M €	694 M €	% 61

Oharra: Zenbakiak biribilduta daude

(*) AHT 2017-2020 aurrekontua barne

(**) Hezkuntza-azpiegiturak 3 proiektutan taldekatzen dira, Lurralde Historiko bakoitzeko bana: 3 zentro Araban, 5 zentro Bizkaian eta 4 zentro Gipuzkoan.

5.2 INBERTSIORAKO 40 PROIEKTUEN EXEKUZIOAREN IKUSPEGI XEHATUA

Beheko koadroak hauek islatzen ditu: 2017ko eta 2018ko proiektu bakoitzaren aurrekontu-exekuzioa, 2017-2018 metatutako ikuspegia, 2019rako eta hurrengo ekitaldietarako aurrekontuen aurreikuspena eta proiektuen egoera.

1. ARDATZA. AZPIEGITURA EKONOMIKOAK ETA MUGIKORTASUNA						
Zbk.	Proiektua	2017 exekutatua	2018 exekutatua	Exekutatu metatua 2017-2018	2019 aurrekontua eta ondorengoak	Egoera (*)
1	Ezkerraldeko Teknologia Parkea hedatzea (1. fase)	3.600.000 €	218.683 €	3.818.683 €	35.160.500 €	Gauzatzen
2	Hego trenbide-saihesbidea (Ikerketak eta Proiektuak)	415.646 €	944.135 €	1.359.781 €	463.447.000 M €	Prestakuntzan
3	Abiadura Handiko Trenaren Azpiegitura	98.060.000 €	73.298.210 €	171.358.210 €	649.830.416 M €	13 tarte amaitu dira 9 tarte exekuzioan edo lizitazioan 4 tarte prestakuntzan
4	Jundizko Plataforma Logistiko Multimodala	39.699 €	0 €	39.699 €	0 €	Prestakuntzan
5	Jundiz-Foronda trenbide-konexioa	0 €	0 €	0 €	100.000 €	Prestakuntzan
6	Arasurreko trenbide-plataforma	6.400.000 €	675.600 €	7.075.600 €	0 €	Amaituta
7	Donostialdeako Metroa. Lugaritz-Morlans saihesbidea	2.070.000 €	17.075.975 €	19.145.975 €	159.035.000 €	Gauzatzen
8	Metro Bilbao: 3. Linea	274.210.000 €	738.586 €	274.948.586 €	0 €	Amaituta
9	Tranbia Vitoria-Gasteiz Unibertsitatea eta Salburua	1.050.000 €	2.661.217 €	3.711.217 €	34.934.000 €	Gauzatzen
10	Gipuzkoako plataforma logistikoa hedatzea Lezon	17.950 M €	0 €	17.950 €	600.000 €	Prestakuntzan
11	Gasteizko BEI-BEA sare integratua (Autobus Elektriko Adimentsua) (**)	10.267.785 €	10.390.500 €	20.658.285 €	7.462.000 €	Gauzatzen
12	Atxuri-Bolueta Tranbia (aurrekoa ordezkatzen du)	0 M €	0 €	0 €	6.125.843 €	Prestakuntzan
13	Debako trenbide-geltokiaren erreforma	0 M €	0 €	0 €	10.230.000 €	Prestakuntzan
14	Ermuko trenbide-geltokia bikoiztea eta berritzea	11.770.765 €	11.973.239 €	23.744.004 €	5.940.000 M €	Gauzatzen
15	Portuetan inbertsioak: Ondarroako arrain lonja	12.765 €	5.000 €	17.765 €	18.281.882 €	Gauzatzen
16	Zibersegurtasun Euskal Zentroa	1.515.377 €	1.183.290 €	2.698.667 M €	0 €	Amaituta
1. ARDATZA GUZTIRA		409.429.987 €	119.164.435 €	528.594.422 €	1.391.146.641 €	

(*) Proiektuen egoera 4 kategoriatan sailkatzen da:

- Diseinuan edo prestakuntzan: inbertsioa behar ez duten lehenengo fasetan dauden azpiegituren edo lanen proiektuak.
- Exekuzioan: garatzen ari diren obren eta azpiegituren proiektuak.
- Amaituta: dagoeneko amaitu diren obren eta azpiegituren proiektuak.
- Atzeratuta edo baztertuta: Oraindik diseinatu/definitu ez diren azpiegituren edo lanen proiektuak; edo atzeratu diren (exekuzio-egutegi zehatzik gabe), edo baztertu edo atzera bota diren azpiegitura edo lanen proiektuak.

2. ARDATZA. HIRI- ETA INGURUMEN-BERRONERATZEA

Proiektu	zenbakia	2017 exekutatua	2018 exekutatua	Exekutatu metatua 2017-2018	2019 aurrekontua eta ondorengoak	Egoera (*)
17	Gasteizko Koroatze auzoa berroneratzeko proiektua burutzea	2.631.999 €	436.099 €	3.068.098 €	1.500.000 €	Gauzatzen
18	Oiongo Araztegia amaitzea	2.240.748 €	782.170 €	3.022.918 €	47.238 €	Gauzatzen
19	Gasteizko egokitzen hidraulikoa	175.287 €	32.170 €	207.457 €	3.004.159 €	Prestakuntzan eta exekuzioan
20	Ibaizabal-Nerbioi ibaia bideratzea (Laudio)	0 M €	0 €	0 €	10.015.506 €	Prestakuntzan
21	Kadagua ibaia bideratzea (Zalla)	1.063.704 €	1.804.911 €	3.408.615 €	1.145.199 €	Gauzatzen
22	Pasaia Portuaren birgaitzea (lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketa-jarduketak)	73.830 €	3.300.017 M €	3.373.847 €	0 M €	Amaituta
23	Zadorra ibaiaren saneamendua, Aguraingo eta Dulantziko hondakin-uren araztegia	0 €	100.000 €	100.000 €	8.066.978 €	Gauzatzen
24	Ibaizabal ibaia bideratzea (Galdakao)	432.194 €	0 €	432.194 €	0 €	Amaituta
25	Gobela ibaia bideratzea (Fadura)	894.531€	0 €	894.531 €	0 €	Amaituta
26	Urdaibai ibaiaren saneamendua: Sukarrietako ponpaketa; Gernikako-Busturiako kolektorea; Muxika-Gernikako kolektorea	7.761.051 €	7.892.814 €	15.653.865 €	9.966.245 €	Gauzatzen
27	Mallabiko saneamendua	99.982 €	0 €	99.982 €	0 €	Prestakuntzan
28	Arasur Parke Fotovoltaikoa (Rivabellosa) (**)	0 €	0 €	0 €	1.000.000 €	Diseinuan edo prestakuntzan
29	Urumea ibaia bideratzea (Martutene)	4.025.404 €	0 €	4.025.404 €	14.614.779 €	Prestakuntzan
2. ARDATZA GUZTIRA		19.938.730 €	14.348.181 €	34.286.911 €	49.360.104 €	

(*) Proiektuen egoera 4 kategoriatan sailkatzen da:

- Diseinuan edo prestakuntzan: inbertsioa behar ez duten lehenengo fasetan dauden azpiegituren edo lanen proiektuak.
- Exekuzioan: garatzen ari diren obren eta azpiegituren proiektuak.
- Amaituta: dagoeneko amaitu diren obren eta azpiegituren proiektuak.
- Atzeratuta edo baztertuta: Oraindik diseinatu/definitu ez diren azpiegituren edo lanen proiektuak; edo atzeratu diren (exekuzio-egutegi zehatzik gabe), edo baztertu edo atzera bota diren azpiegitura edo lanen proiektuak.

(**) Arasur Parke Fotovoltaikoa inbertsio publiko-pribatuko proiektua da, 24 M €-ko guztizko inbertsioa duena, zeinetatik Eusko Jaurlaritzak 1 M € jartzen duen. Lanen exekuzioa 2019rako aurreikusten da, eta urte horren bukaeran parkea dagoeneko funtzionamenduan egotea espero da.

3. ARDATZA. LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA-AZPIEGITURAK HEDATZEA

Proiektu	zenbakia	2017 exekutatua	2018 exekutatua	Exekutatu metatua 2017-2018	2019 aurrekontua eta ondorengoak	Egoera (*)
30	Gipuzkoako Heziketa Zentro berriak: Miguel Altuna LH (Bergara); Hernani BHI; Arroa Behera HLHI (Zestoa); Oikia HLHI (Zumaia)	8.245.790 €	5.238.069 €	13.483.859 €	2.167.369 €	Miguel Altuna LH: amaituta Hernani BHI: amaituta Arroa Behera HLHI: exekuzioan Zumaia HLHI: exekuzioan
31	Arabako Heziketa Zentro berriak: Zabalgana BHI (Gasteiz); Errekabarri HLHI (Salburua, Gasteiz); Aldaialde HLHI (Zabalgana, Gasteiz)	4.890.887 €	4.878.648 €	9.769.535 €	14.792.814 €	Zabalgana BHI: amaituta Errekabarri HLHI: exekuzioan Aldaialde HLHI: exekuzioan
32	Bizkaiko Heziketa Zentro berriak: Iruarte HLHI (Bilbao); Bizkotxade HLHI (Basauri); Ugao BHI; Güeñes BHI; Pagasarribide BHI (Bilbao)	9.834.147 €	4.718.368 €	14.552.515 €	3.805.857 €	Iruarte HLHI: exekuzioan Bizkotxade HLHI: amaituta Ugao BHI: amaituta Güeñes BHI: amaituta Pagasarribide BHI: amaituta
3. ARDATZA GUZTIRA		22.970.824 €	14.835.085 €	37.805.909 €	20.766.040 €	

(*) Proiektuen egoera 4 kategoriatan sailkatzen da:

- Diseinuan edo prestakuntzan: inbertsioa behar ez duten lehenengo fasetan dauden azpiegituren edo lanen proiektuak.
- Exekuzioan: garatzen ari diren obren eta azpiegituren proiektuak.
- Amaituta: dagoeneko amaitu diren obren eta azpiegituren proiektuak.
- Atzeratuta edo baztertuta: Oraindik diseinatu/definitu ez diren azpiegituren edo lanen proiektuak; edo atzeratu diren (exekuzio-egutegi zehatzik gabe), edo baztertu edo atzera bota diren azpiegitura edo lanen proiektuak.

4. ARDATZA. OSASUN-AZPIEGITURAK HEDATZEA

Proiektu	zenbakia	2017 exekutatua	2018 exekutatua	Exekutatu metatua 2017-2018	2019 aurrekontua eta ondorengoak	Egoera (*)
33	Gipuzkoako Osasun Zentro berriak: Alde Zaharra, Aiete eta Aretxabaleta	218.512 €	1.301.462 €	1.519.974 €	14.200.000 €	Alde Zaharra: exekuzioan Aiete: exekuzioan Aretxabaleta: prestakuntzan
34	Arabako Osasun Zentro berriak: Amurrio; Kanpezu; Murgia	2.142.474 €	0 €	2.142.474 €	1.300.000 M €	Amurrio: amaituta Kanpezu: amaituta Murgia: prestakuntzan
35	Bizkaiko Osasun Zentro berriak: Zalla eta Güeñes	199.650 €	0 €	199.650 €	10.000.000 €	Zalla: atzeratuta Güeñes: amaituta
36	Eibarreko Ospitalearen irekiera	10.707.561 €	11.796.391 €	22.503.952 €	500.000 €	Amaituta
37	Biocruces. Osasun-ikerketarako eraikin berria	11.040.598 €	3.110.646 €	14.151.244 €	0 €	Amaituta
38	Urdulizko ospitalea. Laguntza-zerbitzu guztiak osatu	12.970.071 €	3.413.036 €	16.383.107 €	0 €	Gauzatzen
39	Basurtuko ospitalea Kirugia-blokea eta bizkortze-blokea	2.533.092 €	57.316 €	2.590.408 €	1.000.000 €	Gauzatzen
40	Gasteizko ospitale-azpiegiturak: Txagorritxuko ospitalea hedatzea (larrialdiak, erditzeko gelak eta laguntza bidezko ugalketa unitate berria); Txagorritxuko ospitaleko aparkalekua hedatzea; Santiago ospitalea hedatzea	8.558.595 €	25.483.459 €	34.042.054 €	53.000.000 €	Txagorritxu (hedap.): exekuzioan Txagorritxu (apark.): amaituta Santiago ospitalea: amaituta
4. ARDATZA GUZTIRA		48.370.553 €	45.162.310 €	93.532.863 €	80.000.000 €	

(*) Proiektuen egoera 4 kategoriatan sailkatzen da:

- Diseinuan edo prestakuntzan: inbertsioa behar ez duten lehenengo fasetan dauden azpiegituren edo lanen proiektuak.
- Exekuzioan: garatzen ari diren obren eta azpiegituren proiektuak.
- Amaituta: dagoeneko amaitu diren obren eta azpiegituren proiektuak
- Atzeratuta edo baztertuta: Oraindik diseinatu/definitu ez diren azpiegituren edo lanen proiektuak; edo atzeratu diren (exekuzio-egutegi zehatzik gabe), edo baztertu edo atzera bota diren azpiegitura edo lanen proiektuak.

6.

TESTUINGURU, JARDUERA, EMAITZAK ETA INPAKTU ADIERAZLE OROKORREN NEURKETA

TESTUINGURU ADIERAZLE OROKORRAK

ADIERAZLEA	ERABILGARRI DAGOEN AZKENEKO DATUA 2018KO ABENDUAREN 31EKOA DA	ITURRIA
SUSPERTZE EKONOMIKOAREN ARDATZA		
HAZKUNTZA / INDUSTRIALIZAZIOA		
BPGd-aren bilakaera (% aldaketa aurreko urtearekin alderatuta)	% 2,8 (2018)	Eustat.
Per capita BPGd (€)	34.079 € (2018)	Eurostat
Industriaren sektoreak BPGd-an duen pisua (%)	% 24,3 (2018)	Eustat.
Enplegatutako pertsona bakoitzeko produktibitatea (EBko batez bestekoarekin alderatuz - 100)	124,0 (2017)	Eustat.
BPGb-ren gaineko inbertsioa (%)	% 23,6 (2017)	Eustat.
Gizarte Segurantzaren itzura errendaketa errendarekin (kopurua)	50.262 (2018)	Gizarte Segurantzaren
NAZIOARTEKOTZEA		
Merkataritzako balantza	25.488 M € (2018)	Eustat.
Euskadiren esportazio joera (%)	% 33,3 (2018)	Eustat.
Ohiko enpresa esportatzaileak (kopurua)	5.080 (2018)	ICEX
BERRIKUNTZA		
BPGd/I+G gastua (%)	% 1,85 (2017)	Eustat.
Milioi bat biztanleko dauden ikertzaileak (kopurua)	5.735 (2017)	Eustat.
Europako Patenteen Bulegoa (Gaztelera, EPO) patenteen eskaerak (kopurua)	98 (2017)	Eustat.
Enpresa berritzaileak/10 langile baino gehiago dituzten enpresen kopurua (%)	% 35,2 (2017)	Eustat.

ADIERAZLEA	ERABILGARRI DAGOEN AZKENEKO DATUA 2018KO ABENDUAREN 31EKOA DA	ITURRIA
ENPLEGUAREN ARDATZA		
ENPLEGU GEHIAGO		
Enplegu-tasa 20-64 urte (% , Europa 2020 Adierazleak)	% 70,2 (2017)	Eustat.
Langabezia-tasa (% , PRA)	% 10,3 (2018)	Eustat.
Lanbiden erregistratutako langabezia (pertsonek kopurua)	119.674 (2018)	Lanbide
Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonak (kopurua)	947.997 (2018)	Gizarte Segurantzak.
Epe luzeko langabezia-tasa (% , PRA)	% 7,0 (2017)	Eustat.
ENPLEGU HOBEA		
Batez besteko soldata (€)	27.481 € (2016)	INE.
Behin-behinekotasun tasa (%)	% 25,9 (2018)	Eurostat
Ez borondatezko lanaldi partziala (%)	% 48,2 (2018)	INE.
GAZTE ENPLEGUA		
Gazteen enplegu-tasa 16-29 urte (%)	% 40,3 (2018)	Gazteen Euskal Behatokia.
Gazteen langabezia-tasa 16-29 (%)	% 15,5 (2018)	Gazteen Euskal Behatokia

7.

ONDORIOAK

URTEKO EBALUAZIOAREN ONDORIO NAGUSIAK

2020 Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru-programa estrategia publiko eta pribatu orokor gisa formulatu zen, enpleguaren eta suspertze ekonomikoaren alde. Bere helburu orokorra legegintzaldi honetan planteatutako ezinbesteko erronkari, “enplegu gehiago eta hobe” sortzeari, erantzuna ematea da. Modu kualitatiboan, aldi honetarako 2 herri-helburu nagusi zehaztu ziren. Hauek 2020rako langabezia-tasa % 10raino murriztean eta 20.000 gazteri lan aukera bat eskaintzean gauzatu ziren.

Programa abiarazteko aurreikusitako aurrekontua 8.800 M €-koa da, 2018ko aurrekontuetan 2.188 M €-ko aurrekontua onartu zelarik ekitaldi horretarako. Kopuru horretatik, 297 M € Enpleguaren Ardatzerako eta 1.291 M € Suspertze Ekonomikoaren Ardatzerako dira, abaitarako 600 M € gehitu direlarik. **2018an zehar, Programaren Ardatzen exekuzio erreala aurreikusitako aurrekontuen % 98koa izan da; hau da, 2.140 M €, zeinetatik 305 M € Enpleguaren Ardatzari dagozkion (% 103ko exekuzioa) eta 1.235 M € Suspertze Ekonomikoaren Ardatzari dagozkion (% 96ko exekuzioa). 2017an eta 2018an exekutatutako baliabide ekonomikoak modu metatuan kontutan hartuz, programaren exekuzio globalak 4.224 M € suposatuko luke; hau da, 2017-2020 aldirako aurreikusitakoaren % 48.**

Emitzen ikuspuntutik, Programak euskal ekonomian honako inpaktu hau izango zuela estimatu zen: sustatutako 58.000 lanpostu, lagundutako 6.000 enpresa berri, finantzatutako 100 ikerketa proiektu berri, lagundutako 1.200 ETE kanpoko merkatuetara sartzeko, lagundutako 1.100 ETE haien berritzeko eta hedatzeko proiektuetan eta lagundutako 4.100 berrikuntza proiektu.

2018an zehar, Programaren bi ardatzetan aurreikusitako ekimenek emaitza hauek izan dituzte: **18.344 enpleguren sustapena, 1.970 enpresen sorreran laguntzea, 32 ikerketa-proiektuen finantzazioa, 349 ETE kanpoko merkatuetara sartzen laguntzea, 875 ETE berritzeko eta hedatzeko proiektuen garapenean laguntzea eta 1.635 ETE berrikuntza proiektuen garapenean laguntzea.** Halaber, Esparru-programak aurreikusten dituen 40 azpiegitura-proiektu estrategikoak prestakuntzan, exekuzioan edo amaituta daude. **Emitza hauek, 2017an lortutakoekin batera, % 60ko** ekarpena egiten diete 2017-2020 aldi osorako **Enpleguaren Ardatzean aurreikusitako helburuei.** Suspertze Ekonomikoaren Ardatzean sortu duen inpaktuari esker, aurreikusitako helburuak, batez bestez, % 70an edo gehiagoan bete dira, nazioartekotzearen kasuan salbu (% 50).

Gazte enpleguaren sustapenaren aldetik, **10.259 gaztek izan dute lan-aukera bat 2018an hainbat programari esker,** besteak beste, beraien titulazioarekin lotutako eta tokiko erakundeetan lanpostuetarako enpresen aldetiko kontratazioa, ekintzailetza gaztea, hezkuntza-arlotik lan-mundura igarotzeko lehenengo esperientzia, nazioarteko esparruan esperientzia praktikoa lortzeko bekak eta langileen berrikuntza Lan Eskaintza Publikoen eta txanda-kontratuen bidez. **Emitza hauek, 2017an lortutako emaitzei gehituz gero (6.856 pertsona gazte), 2017-2020 aldi osorako aurreikusitako helburuen % 86 betetzea suposatu dute.**

Azkenik, **langabezia-tasa % 10,3an** geratu da 2018ko azken hiruhilekoan, beraz, tasaren 2,3 puntuko murrizketa lortu da, abiapuntu egoerarekin alderatuta (% 12,6, 2016ko azken hiruhilekoan), eta hori aurrerapauso nabarmena da amaierako helburua betetzeko bidean, hau da, 2020an langabezia-tasa % 10etik beherakoa izan dadin.

8

ERANSKINA. Garatutako jarduera nagusiak (2018.01.01tik 2018.12.31rako aldia)

**(Ardatzetan, esparru operatiboetan eta jarduera-ildoetan
sailkatuta)**

1. ARDATZEKO JARDUERAK ENPLEGUA

E.1. esparru operatiboa ETEak, Gizarte Ekonomia eta Tokiko Garapena

E.1.1. jarduera-ildoa. Diru-laguntzak ETEentzat

Krisian dauden enpresak berregituratzeko eta berrabiarazteko Bideratu Berria Programaren deialdia.	Industria Sailburuordetza
2012an LUZARO BEIrekin sinatutako hitzarmenaren luzapena, inbertsioen finantzaketa, berrikuntza teknologikoko proiektuak, finantza-sendotzea eta hazkuntza-proiektuekin lotutako aktibo zirkulatzailaren finantzaketa sustatzeko partaidetza-maileguak emateko.	Ekonomia, Finantzak eta Aurrekontu Sailburuordetza
Elkargi-rekin sinatutako Berrito Finantzatzeko Oinarritzko Hitzarmenaren eta Hitzarmen Gehigarriaren luzapena	
Arrisku partekatuko (% 60 Eusko Jaurlaritza eta % 40 finantza-erakundeak) finantza-lankidetzarako hitzarmena luzatzea; ETEen jarduera produktiboekin lotutako inbertsio-eragiketarako eta aktibo finkoa edo zirkulatzaila erosteko eragiketarako.	

E.1.2. jarduera-ildoa. Tokiko merkataritza enplegua sustatzea

Merkataritza-banaketaren kudeaketan teknikariak prestatzeko diru-laguntzen deialdia	Turismo eta Merkataritza Sailburuordetza
Merkataritza saltokiak modernizatzeko laguntzen (MEC, gaztelaniako akronimoaren arabera) deialdia	
Sektoreko belaunaldien arteko erreleboa sustatzeko Berriz Enpresa programaren deialdia, enpresa eskualdatzeak dakartzan prozesuetarako laguntza eta aholkularitza eskaintzeari esker	
Ecommerce programa merkataritza elektronikoaren modalitatea saltoki txikietan ezarri eta garatzeko.	

E.1.3. jarduera-ildoa. Enpleguari laguntza tokiko lehen sektorean

2020 landa Garapenerako Programaren esparruan (Leader eremuak eta Erein eremuak) onartutako landa zonaldeetako dibertsifikazio ekonomikora eta garapenera zuzendutako laguntzen deialdia	Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetza
Aholkularitza eta laguntza integral eta pertsonalizatua jasotzeko zerbitzua, elikaduraren balio-katean eta landa- eta kostalde-ingurunean jardura bati ekin nahi dioten pertsonen eta/edo enpresei zuzendutakoa (Geroa eta Gaztenek).	
EAEko nekazal-esparrura eta nekazaritzako elikagaien enpresetara hurbiltzeko diru-laguntzen deialdia	
Sektoreko balio-katearen inguruko oinarritzko ezaguerei buruzko prestakuntza-ekintza orokorrak eta gai espezifikoaren inguruko bestelako ekintza intentsiboak programatzea; eta hori guztia modalitate teorikoa prestakuntza praktikoko modalitatearekin konbinatuta.	

E.1.4. jarduera-ildoa. Gizarte ekonomiari laguntza

Gizarte ekonomian ekiteko eta gizarte ekonomiako enpresen lurralde-planifikazioa sustatzeko laguntzen deialdia	Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburuordetza
Gizarte ekonomiako enpresetara bazkideak sartzeko laguntzen deialdia	
Kooperatiben eta lan-sozietateen enpresa-kudeaketa hobetzeko programa, plangintzarako eta kudeaketa aurreraturako tresnak erabiltzeko laguntza teknikoari esker.	

E.1.5. jarduera-ildoa. Turismoaren sektoreko enpleguei laguntza	
Produktu turistiko berriak sortu, abian jarri, sustatu eta merkaturatzeko eta helmuga turistikoetako enpresen lehiakortasuna hobetzeko laguntzetarako deialdia (Lurralde Proiektu Turistikoak)	Turismo eta Merkataritza Sailburuordetza
Ekintzailatzarako eta modernizaziorako eta turismo-enpresen lehiakortasunaren hobekuntzarako laguntzen deialdia (EMET)	
Sektoreko belaunaldien arteko erreleboa sustatzeko Berriz Enpresa programaren deialdia, enpresa eskualdatzeak dakartzan prozesuetarako laguntza eta aholkularitza eskaintzeari esker	
Sektorea profesionalizatzeko prestakuntza-ekintzen programazioa, helmuga turistikoen lehiakortasuna hobetze aldera	
E.1.6. jarduera-ildoa. Egoera okerrean dauden eskualde eta udalerriei laguntza espezifikoak	
Enkarterri eskualdean ekonomia suspertzeko Plana, 2018 eta 2019 urteetan inplementatzeko 12 neurri dituena	Industria Sailburuordetza
Nerbioi Ibaiaren Ezkerraldeko guneei eta Oizualdean enplegua sortzeko ekoizpen-inbertsioak egiten dituzten enpresentzako laguntzen deialdia (Indartu Programa)	
E.2. esparru operatiboa Ekintzailatza Sustatzea	
E.2.1 jarduera-ildoa. Ekintzailatza berritzaileari eta barne ekintzailatzari laguntza	
Ekintzaile Programaren bitartez Enpresa eta Berrikuntza Zentroen bidez (BIC) egiten diren babestutako proiektuak egiteko ekintzaileentzako laguntzak	Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetza
Barneekintzaile programa dagoeneko ongi finkatutako industria-enpresen barne-ekintzailatzako proiektu berriak aztertze, zehazte eta martxan jartzeko	
BIND 4.0 programa 4.0 industriaren eremuan startup-ak azeleratzeko, non startup bakoitzak industria enpresa handi batekin kontratua sinatzea errazten den, mentoring- eta azelerazio-programa pertsonalizatuaz gain	
Ekintzailatza-proiektuak finkatzeko laguntza Basque funtsari esker. Funts honek arrisku-kapitala/hazi-kapitala bultzatu nahi du proiektuek garapen- eta finkatze-faseetan zehar dituzten finantzaketa-beharra asebetetzeko	
Gauzatu Industria Programaren deialdia, zeinaren bidez oinarri teknologikoa duten edota berritzaileak diren ETEen sorrera eta garapena sustatzera zuzendutako itzul daitezkeen laguntzak ematen diren	Industria Sailburuordetza
E.2.2. jarduera-ildoa. Ekintzailatza berritzaileari eta barne ekintzailatzari laguntza	
Langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzen duten pertsonen Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko diru-laguntzak emateko baliabide ekonomikoaren esleipena	Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza
Tokiko Ekintzailatza Proiektuen esparruan, ekintzaileak babesteko laguntzen deialdia	
Lankidetzat beste eragile batzuekin ekintzailatza sustatzeko laguntza-ildoaren garapenean, barne hartuta ekintzaileei zuzendutako arreta eta aholkularitza, enpresa berriak sortzeko laguntza eta ekintzailatza berrien finkatzea (Dema Programa, Gaztenpresa Programa)	

E.3. esparru operatiboa Gazteen enplegua sustatzea	
E.3.1. jarduera-ildoa. Hezkuntzatik lanera igarotzea	
Hezkuntza-lan trantsiziorako programa, 3 hilabeteko lehen esperientzia praktikoa eskaintzeko helburua duena eta unibertsitate-graduak eta lanbide-heziketako ikasleei zuzendua dagoena. Programaren helburuak dira enplegu kualifikatu bat burutzeko behar diren ezaguerak, gaitasun teknikoak eta trebetasunak areagotzea eta ekoizpen-sektore bakoitzeko enpresen behar espezifikoak erantzutea.	Lanbide Heziketako Sailburuordetza eta Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza
